



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko martxoaren 7a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2009ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Comptos Ganberak egin (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2009ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste: Ikusita Comptos Ganberak igorri duela 2009ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena,

ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

2009ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Foru sektore publikoa (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1 Antolaketa (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.2 Araudia (6. or.).</p> <p>III. Fiskalizazioaren helburua (6. or.).</p> <p>IV. Fiskalizazioaren norainokoa eta mugak (6. or.).</p> <p>V. Iritzia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1 Urteko kontuak (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2 Legezketasuna (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3 Egoera ekonomiko eta finantzarioa (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4 Gomendioen betetzea (8. or.).</p> <p>VI. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteko kontuak. (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. 2009ko aurrekontuaren likidazioa (9. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">VI.2. 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Eraitzen kontua, 2009ko abenduaren 31n (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Diruzaintza-gerakina, 2009ko abenduaren 31n (14. or.).</p> <p>VII. Erregulartasunari buruzko auditoriaren iruzkinak eta ondorioak (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.1 Aurrekontu Orokorrak eta Nafarroako Kontu Orokorrak (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.2 Aurrekontuaren likidazioa (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.3 Langile-gastuak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.4 Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea. (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.5 Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapitaleko transferentziengatiko gastuak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.6 Inbertsioak (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.7 Inbertsio errealak besterentzea. (23. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.8 Jasotako fidantzak eta gordailuak (23. or.).</p> <p>VIII. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sozietate publikoak (24. or.).</p> <p>IX. Gomendioak (25. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.1. Aurrekontuak eta kontu orokorrak (25. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.2. Kontabilitatearen kudeaketa (25. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.3. Langileak (26. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.4. Administrazio-kontratazioa. (26. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.5. Transferentzia-gastuak (26. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.6. Sozietate publikoak (26. or.).</p> <p>Nafarroako Gobernu bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak aurkeztutako alegazioak. (27. or.).</p> <p>Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (27. or.).</p> |
|--|--|

I. SARRERA

Comptos Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrek fiskalizatu ditu. Lege horrek ezartzen duenez, Kontu Orokorren azterketa eta zentsura Nafarroako Parlamentuak Comptos Ganberari igorri eta hurrengo hiru hilabeteetan egingen da.

2009ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuaren 2010eko irailaren 13ko erabakiaren bidez onetsi zen, eta 2010eko irailaren 22an sartu zen Comptos Ganberan.

Fiskalizazio-lan hau sartu zen Comptos Ganberak 2010erako onetsi zuen fiskalizazio-programan, eta auditoriako bost teknikarik eta auditore batek osaturiko taldeak egin zuen, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Azterketa lana 2010eko uztailetik azarora bitartean egin zen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, haren erakunde

autonomoetako eta haren sozietate publikoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzaren-gatik.

II. FORU SEKTORE PUBLIKOA

II.1 ANTOLAKETA

Foru sektore publikoa honakoek osatzen dute, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen ondorioetarako:

– Foru Komunitateko Administrazioa eta hari atxikitako erakunde autonomoak.


– Foru Komunitateko sozietate publikoak.

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde publikoetako fundazio publikoak.

– Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Comptos Ganbera eta Arartekoa.

– Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua.

Hauxe zen foru sektore publikoaren 2009ko irudikapen grafikoa:



* Sozietate publikoak hurrengo orrialdean agertzen dira.

II.2 ARAUDIA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari 2009an aplikatzekoa zaion araudia honako lege-eta erregelamendu-xedapenek osatzen dute, besteak beste:

2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legea.

Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea, Nafarroako Ondareari buruzkoa.

Abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Tributuei buruzkoa.

Abenduaren 26ko 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesteari buruzkoa.

Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzkoa.

Abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa.

Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzkoa.

6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoari buruzkoa.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoa.

1994ko maiatzaren 6ko Agindua, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 aldirako neurriei buruzko azaroaren 6ko 18/2008 Foru Legea.

Aurrekontu-orekari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUA

Finantza- eta legezkotasun-erregulartasunari buruzko fiskalizazioaren helburua da gure iritzia ematea hurrengo gaietara buruz:

a) Ea 2009ko ekitaldiari buruzko Nafarroako Kontu Orokorrek ondarearen eta egoera ekonomikoaren, aurrekontuko likidazioaren eta 2009ko abenduaren 31ko emaitza ekonomikoaren irudi

zehatza agertzen duten, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera.

b) Ea lege indardunak bete diren 2009an izandako jarduera finantzarioan.

c) Foru Ogasunaren 2009ko ekitaldiko egoera ekonomiko eta finantzarioa.

d) Ea aurreko fiskalizazioetan eginiko gomen-dioak bete diren.

IV. FISKALIZAZIOAREN NORAINOKOA ETA MUGAK

Nafarroako Kontu Orokorrek foru sektore publikoa osatzen duten enteen kontuek osatuta daude.

Erregulartasunari buruzko fiskalizazioak aztergai hartu zituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2009ko ekitaldiko urteko kontuak. Haietan, honakoak ageri dira:

– aurrekontuaren likidazioa

– 71 aurrekontu-programatako emaitzen balantze bat eta kudeaketari buruzko txosten bat

– egoerari buruzko balantzea

– emaitza ekonomikoari eta ondarearen arloko emaitzari buruzko kontua.

– oroitidazki orokor bat, aurreko egoera-orrietan jasotako informazioa zabaltzen eta iruzkintzen duena.

Fiskalizazioa honako honetan gauzatu da: barne kontrolaren analisisa eta berriuspena egitea aurrekontuko gastuen eta diru-sarreraren eta balantzeko kontuen lagin bati eta ekonomia eta ondare arloetako emaitzaren kontuari. Horretarako, hautaketa-probak egin eta lanaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jo diren probak baliatu dira.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta arauetara jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu.

Nafarroako Kontu Orokorrei dagokienez, ganbera honek Nafarroako Parlamentuaren 2009ko kontuak fiskalizatu ditu, bai eta haren menpeko organoenak –Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua–, Nafarroako Kirolaren Institutua erakunde autonomoarenak eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Enpresa-jarduera sustatzea” aurrekontu-programarenak ere.

Ez dugu auditoriarik egin sozietate eta fundazio publikoen 2009ko ekitaldiko urteko kontuei

buruz; izan ere, haien kontuen auditoria urtero egin beharra dago, eta kanpoko profesionalek egin dute, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Kontu-hartzailletza Nagusiaren zuzendaritzapean.

V. IRITZIA

Erregularitasuna dela-eta egindako azterketaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

V.1 URTEKO KONTUAK

Ibilgetuaren saldoak ez ditu bere barrenean hartzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jabetzapeko ondasun guztiak –besteak beste, erabilera orokorrerako inbertsioak eta ibilgetu ez-materialeko inbertsioak–, ez du jasotzen balioa galtzen duten elementuen amortizazioa, eta ez dago oinarrituta ondasunen eta eskubideen inbentarioan. Ez dago Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jabetzapeko ondasun guztien inbentario baloratu eta osorik.

Ez dira jaso Administrazioeko funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen betebeharrak aktuariaren ondorioz dauden gorabeherak.

Aurreko salbuespenak gorabehera, 2009ko ekitaldiko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren urteko kontuek irudi zehatza agertzen dute, muntadunak diren alderdi guztietan, 2009ko abenduaren 31ko ondareari, 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari eta emaitza ekonomiko eta ondarezkoari buruz. Beharrezkoa eta nahikoa den informazioa biltzen dute hori egokiro interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraituz.

V.2 LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jardura finantzarioa 2009an, oro har, legezketasun printzipioaren arabera izan da.

V.3 EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Hona Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen egoera finantzarioari buruzko adierazle batzuk:

	Euroak, milioitan	
	2009	2008
Diru-sarrera arruntak	3.846,08	3.849,62
Funtzionamendu-gastuak	3.331,03	3.300,09
Aurrezki gordina	515,05	549,54
Finantza-karga	35,15	30,79
Aurrezpen garbia	479,90	518,74
Inbertsioak eta bestelako kapital gastuak	965,75	977,37
Kapitaleko diru-sarrerak	135,78	133,97
Kapital defizita	829,97	843,40
Aurrekontuaren saldo doitua	-89,63	8,56
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-147,16	100,50
Zorra	1.030,24	815,51
Zorpetze-maila	% 0,91	% 0,8
Zorpetze-muga	% 13,39	% 14,27

Ondoko emaitza hauek lortu dira 2009ko ekitaldian:

– 89,63 milioi euroko aurrekontu-emaitza doitu negatiboa 2009ko aurrekontua betetzean. Emaitza hori 105,21 milioi negatiboa izateraino iritsiko zen baldin eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak materialetan eta zerbitzuetan gastatutako 15,58 milioi euroak aplikatu balitzaizkio aurrekontuari.

Aurrekontu-emaitza doitu negatiboa da batez ere 2009an emandako kapital-transferentzien eta inbertsioen finantzaketaren defizitaren eraginez. 479,90 milioi euroko aurrezki garbia lortu bazen ere (baliabide arrunten gerakina, funtzionamendugastu arruntak eta finantza-zama finantzatu ostean), aurrezki hori ez zen 2009an egindako kapital-gastuak finantzatzeko adinakoa.

– 1.030,24 milioi euroko zorra, erregioko 2009ko barne produktu gordinaren ehuneko 5,65. Diru-sarrera arrunten ia ehuneko 1 bideratu zen zorraren interesetara, 35 milioi eurokoak izan baitziren. Foru Ogasunak, 2009an sortu zuen aurrezki garbiarekin, zorraren finantza-zamarako bideratzen ahal du bere diru-sarrera arrunten ehuneko 12,49.

– 147,16 milioi euroko diruzaintza-gerakin orokorra; horrek esan nahi du 2009an ez zela sortu hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko likidezirik.

– 477 milioi euroko finantzaketa-beharrizanak, aurrekontu-egonkortasunari begira; alegia, herrialdeko Barne Produktu Gordinaren ehuneko 2,6. Hartara, ez da bete 2009rako ezarri zen aurrekontu-egonkortasuneko helburua, Barne Produktu Gordinaren ehuneko 0,75ean ezarri zena, inbertsioengatik defizita sartu gabe.

Aurrekontu Egonkortasunerako Lege Organikoren osagarria den abenduaren 13ko 5/20 Lege Organikoko 8.1 artikulua ezarri zuen beren aurrekontuak egonkortasunaren helburua urratuz onetsi duten autonomia erkidegoek plan ekonomiko finantzario bat egin beharko dutela, oreka berres-

kuratzeko. Plan horretan, izan ere, diru-sarreraren eta gastuen politikak definitu beharko dira, gehienez ere hurrengo hiru aurrekontu-ekitaldietan egonkortasun helburuaren ez-betetzea zuzentzeko aplikatuko direnak. Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak oreka berreskuratzeko plan ekonomiko finantzario bat egin zuen 2009-2013 urteetarako.

Egiaztatu da 2008tik 2009ra Foru Ogasunaren egoera finantzarioak okerrera egin duela, funtsean eta besteak beste honako kontzeptu ekonomikoen ondorioz:

– Zuzeneko zergen ondoriozko diru-sarrerek ehuneko sei egin dute behera, eta zeharkako zergek, berriz, ehuneko zortzi.

– Langile-gastuek ehuneko sei egin dute gora.

– 2009an eginiko inbertsioek ehuneko 11 egin dute gora, 2008an eginikoekin alderatuta.

– Zorrek ehuneko 26 egin du gora, eta horrek berekin ekarriko du datozen ekitaldietan interesen eta amortizazioaren ondoriozko gastu finantzarioek gora egitea.

– Diruzaintzako gerakin orokorrak nabarmen egin du behera: 2008an 100,5 milioikoa izatetik 2009an -147,16 milioikoa izatera iritsi da.

V.4 GOMENDIOEN BETETZEA

Egiaztatu dugu aurreko fiskalizazioetan emandako hurrengo gomendioak bete egiten direla:

- 2009ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorrerantz sartu ditugu Foru Komunitatearen Administrazioaren zeharkako parte-hartzeak kapital sozialaren gehiengo osoa egiten duen sozietate publikoen kontuak: Circuito de los Arcos S.L., Ciudad Agroalimentaria de Tudela S.L., Echauri Forestal S.L. eta Tucklan Footwear S.L.

- Aurrekontuetan sartu zen 79 milioiko kreditu bat, komunikazio ardatz estrategikoak azkartzeko planean 2009rako aurreikusitako obrak egiteko. Kreditu hori, dena den, ez zen nahikoa izan, eta 73,54 milioi euroko aurrekontu-aldaketak izapidetu behar izan ziren.

VI. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUN- DE AUTONOMOEN URTEKO KONTUAK.

Ondoren, Foru Komunitateko Administrazioaren urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri batzuk ematen ditugu.

VI.1. 2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2009ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera
(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldak.	Bateratua	Burutua	Ordainketak
Langileria-gastuak	1.157.870	184.473	1.176.343	1.176.307	1.175.798
Ondasun arruntetako gastuak	501.717	30.521	532.238	511.825	416.602
Finantza-gastuak	46.555	-7.050	39.505	35.119	35.046
Transferentzia arruntak	1.543.075	139.153	1.682.229	1.642.900	1.574.553
Inbertsio errealak	332.566	56.508	389.074	341.096	248.836
Kapital-transferentziak	696.771	14.049	710.820	624.652	500.152
Aktibo finantzarioak	20.148	21.042	41.190	40.751	40.749
Pasibo finantzarioak	3.053	30	3.083	30	30
Guztira	4.301.755	272.726	4.574.482	4.372.680	3.991.766

2009ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera
(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Bateratua	Aitorturiko eskubideak	Kobrantzak
Zuzeneko zergak	2.148.810	2.148.810	1.984.115	1.941.875
Zeharkako zergak	1.597.936	1.597.936	1.422.507	1.411.564
Tasak, prezioak eta bestelako diru-sarrerak	94.607	228.784	346.580	294.011
Transferentzia arruntak	49.947	67.756	71.801	67.332
Ondareko diru-sarrerak	25.917	25.939	21.082	20.836
Inbertsio errealen besterentzea	16.960	17.224	12.284	3.136
Kapital-transferentziak	140.957	179.124	123.495	110.456
Aktibo finantzarioak	23.121	97.346	24.474	22.706
Pasibo finantzarioak	203.500	211.562	214.730	214.730
Guztira	4.301.755	4.574.481	4.221.068	4.086.646

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitorturiko betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	3.846.085	3.366.151	479.934
2. Kapital-eragiketak	135.779	965.748	-829.969
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	24.474	40.751	-16.277
I. EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA	4.006.338	4.372.650	-366.312
II. FINANTZA-PASIBOEN ALDAKETA GARBIA	214.700	0	214.700
III. EKITALDIKO AURREKONTUAREN SALDOA			-151.613
4. Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako betebeharrak aitortuak.			60.919
5. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			5.799
6. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze positiboak			4.736
IV. EKITALDIKO AURREKONTUAREN SALDO DOITUA (III + 4 + 5 - 6)			-89.630

VI.2. 2009ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

(euroak, milakotan)

AKTIBOA	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
A) IBILGETUA	2.257.826	2.244.758
III. Ibilgetu materialak	1.737.205	1.618.074
1. Lursailak eta eraikinak	1.137.667	1.043.299
2. Instalazio teknikoak eta makineria	62.987	57.321
3. Tresneria eta altzariak	314.662	302.976
4. Beste hainbat ibilgetu	221.889	214.478
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	520.621	626.683
1. Epe luzerako baloreen zorroa	508.379	648.190
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	160.093	156.576
3. Epe luzerako eratutako fidantza eta gordailuak	25	25
4. (Hornidurak)	-147.876	-178.108
B) ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	127	142
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	479.242	774.773
I. Izakinak	10.062	17.318
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	10.062	17.318
II. Zordunak	269.626	273.600
1. Aurrekontu-zordunak	520.382	459.391
2. Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	138	232
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatik zordunak	164	223
5. Bestelako zordunak	6.141	5.001
6 (Hornidurak)	-257.199	-191.247
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	201.203	481.198
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	201.201	481.193
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	2	5
IV. Diruzaintza	-1.650	2.657
Guztira, orokorrean (A+B+C)	2.737.195	3.019.673

PASIBOA	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
A) FUNTS BEREKIAK	1.187.807	1.612.784
I. Ondarea	1.976.575	1.721.723
1. Ondarea	1.976.575	1.721.723
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-363.788	254.849
1. Aurreko ekitaldiko emaitza	-363.788	254.849
IV. Ekitaldiko emaitzak	-424.977	-363.788
C) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	970.843	816.097
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	600.352	610.352
1. Obligazioak eta bonoak	600.352	610.352
II. Epe luzeko bestelako zorrak	370.491	205.745
2. Bestelako zorrak	369.887	205.157
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	604	588
III. Akzioen gaineko ordainketa eskatu gabeak, egiteko daudenak	0,06	0,06
D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	578.545	590.792
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	60.000	0
1. Epe laburreko obligazioak eta bonoak	60.000	0
III. Hartzekodunak	518.545	590.792
1. Aurrekontuko hartzekodunak	502.456	578.562
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	6.429	5.492
4. Administrazio publikoak	2.920	2.750
5. Beste hartzekodunak	4.381	1.851
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	2.359	2.136
Guztira, orokorrean (A+C+D)	2.737.195	3.019.673

VI.3. EMAITZEN KONTUA, 2009ko ABENDUAREN 31n

ZOR	(euroak, milakotan)	
	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
A) GASTUAK		
2. Hornidurak	199.187	179.566
b) Ekitaldiko kontsumoak	199.187	179.566
c) Kanpoko beste gastu batzuk	0,07	0,2
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.718.097	1.600.171
a) Langile-gastuak.	1.119.202	1.053.169
a.1) Soldatak eta ordainsariak	947.918	906.736
a.2) Gizarte-zamak	171.284	146.434
b) Gizarte-prestazioak	57.600	54.338
d) Trafiko horniduretako aldaketak	65.952	37.065
d.1) Hornigaien bariazioa eta kobrazinak diren kredituen galerak	65.952	37.065
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	320.325	317.105
e.1) Kanpoko zerbitzuak	320.318	317.056
e.2) Tributuak	7	49
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	35.135	30.551
f.1) Zorrak direla eta	35.135	30.551
g) Finantza-inbertsioen probisioen aldaketa	119.882	107.942
4. Transferentziak eta diru-laguntzak	2.267.194	2.367.670
a) Transferentzia arruntak	1.642.542	1.696.291
c) Kapital-transferentziak	624.652	671.379
5. Ezohiko galerak eta gastuak	224.984	208.845
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	0,01	0
c) Aparteko gastuak	212.328	191.556
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	12.656	17.2889
SALDO HARTZEKODUNA (AURREZKIA)		
Zorrak, guztira	4.409.463	4.356.252

HARTZEKOA	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
B) DIRU-SARRERAK		
1. Ohiko kudeaketari dagozkionak	3.437.381	3.677.500
a) Zerga-sarrerak	3.422.648	3.660.677
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.369.918	1.408.123
a.2) Sozietateen gaineko zerga	571.072	582.423
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	39.205	45.014
a.4) Ondarearen gaineko zerga	0	65.163
a.9) Ondare-eskualdaketen eta EJDren gaineko zerga.	74.273	92.379
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	904.170	990.502
a.11) Zerga bereziak	444.064	459.817
a.12) Zuzeneko zerga iraungiak	3.921	
a.15) Zerbitzuak emateagatiko tasak	16.025	17.254
b) Kotizazio sozialak	3.732	4.147
c) Zerbitzuak ematea.	11.000	12.676
c.1) Zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak	11.000	12.676
2. Ohiko kudeaketako beste sarrera batzuk	336.903	121.065
a) Itzultzeak	224.534	15.977
c) Salmentak eta zerbitzuak ematea.	24.444	22.106
c)Kudeaketako beste sarrera batzuk	56.234	33.865
c.1) Sarrera osagarriak eta ohiko kudeaketako beste batzuk	56.234	33.865
d) Kapitaleko parte-hartzeengatiko diru-sarrerak	9.775	10.206
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	21.916	38.912
f.1) Beste interes batzuk	21.916	38.912
3. Transferentziak eta diru-laguntzak	195.296	176.938
a) Transferentzia arruntak	71.801	51.057
b) Kapital-transferentziak	123.495	125.881
5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	14.906	16.959
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	240	1.801
c) Jadaneke ekitaldiko ezohiko sarrerak	0	75
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	14.666	15.083
Saldo zorduna (DESAURREZKIA)	424.977	363.788
Hartzekoa, guztira	4.409.463	4.356.252

VI.4. DIRUZAINZTA-GERAKINA, 2009ko ABENDUAREN 31n

(euroak, milakotan)

KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK		217.823
Diru-sarrerren aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	455.998	216.697
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-238.920	
Aplikatzekoak diren kontusailengatiko gutxiagotzea	-381	
Diru-sarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	12.962	259
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-12.703	
Aurrekontuaz besteko diru-sarrerak	945	861
Aurrekontuaz kanpoko eskubideak, biltzen zailak	-84	
ORDAINTZEKO DAUDEN ORDAINSARIAK		518.412
Gastuen aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	428.271	428.271
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	21.989	21.989
Aurrekontuaz besteko gastuak	68.151	68.151
FUNTS LIKIDOAK		199.551
Funts likidoak, guztira	199.551	
DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA		-101.038
Karbono Funtsari atxikitako diruzaintzako gerakina		4.673
Toki Ogasunen Funtsari atxikitako diruzaintzako gerakina		32.810
Finantziazioaren desbideratze metatu positiboak		8.639
ATXIKITAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA		46.123
DIRUZAINZAKO GERAKINA, GASTU OROKORRETARAKO		-147.160

VII. ERREGULARTASUNARI BURUZKO AUDITORIAREN IRUZKINAK ETA ONDORIOAK

Ondoren, eginiko fiskalizazioaren ondorio nagusien gaineko iruzkina eginen dugu.

VII.1 AURREKONTU OROKORRAK ETA NAFARROAKO KONTU OROKORRAK

2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legearen bitartez onetsi ziren. Diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak 4.301,75 milioi eurokoak izan ziren. Guztira, Foru Komunitateko Administrazioa 12 departamentuei eta erakunde autonomoei dagozkien 96 programa jaso dira.

2009an eginiko gastuen aurrekontuetako aldaketek 272,73 milioi euro egin zuten; hain zuzen ere, hasierako kredituen ehuneko sei.

Aldaketak organo eskudunak onetsi zituen, eta aurrekontu-arauetan ezarritako lege-mugak errespetatu ziren.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteko kontuek Ogasun Publikoari buruzko Legean ezarritako kontabilitate-egoerak hartzen dituzte.

Oroitidazkian kontabilitatearen egoera-orrietako informazioa iruzkindu eta zabaltzen da eta Ogasun Publikoari buruzko Legean ezarritako informazioaz haratagoko informazio gehigarria jasotzen du; hartara, informazioa ematen da aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzeari buruz, kontabilitate nazionalen terminoetan, eta honakoak ere jasotzen dira: adierazle finantzario eta ondarekoen gaineko azterketa bat, 2009an eginiko kontratu publikoak, eta programa eta kontusailen araberako gastu eta diru-sarrerak eta haien sailkapen ekonomikoari buruzko xehetasunak.

Halere, gabezia hauek egiaztatzen dira:

– Aurrekontuaren likidazio-egoerak ez ditu barnean hartzen ez kreditu-gerakinak, ez eta kitatutako eskubideak ere.

– Oroitidazkian, ez dugu sartu ondasunen inbentarioari buruzko informaziorik.

– Etorbizuneko gastuen konpromisoetan ez da zama finantzarioa jasotzen.

Eragiketa ekonomikoak kontabilizatzerakoan izandako akatsei dagokienez, honakoak azpimarratu behar ditugu:

– Aurrekontuari aplikatzeke dauden hartzekodunen 409. kontua Osasun Departamentuan erabiltzen den aldi baterako kontu bat da, non material sanitarioaren eta ez-sanitarioaren erosketak eta

hartutako zerbitzuak jasotzen baitira. 2009ko abenduaren 31n, 6.669.873 euroko saldoa dauka (6.096.802 euro 2009ko urtarrilaren 1ean). Saldo hori aurrekontu-krediturik ez egoteagatik aurrekontuari aplikatu ez zitzaizkion baina 2009an egin ziren erosketei eta hartu ziren zerbitzuei dagokie.

Gainera, aurrekontuari aplikatzeko zaion zordunen saldoak ez du islatzen egindako gastu guzti-guztia, zeren eta ez baitira kontuan hartu 2009ko irailetik abendura bitarteko hilabetei dagozkien osasun-itunen 8.909.940 euro.

– Zordunen eta hartzekodunen kontuetan ez dira kasuko ekitaldikoak eta itxitako ekitaldikoak bereizten.

Horrela, 2009ko aurrekontuan gutxienez ere 2008ko 528.000 euro aplikatu dira, garagardoaren gaineko eta aseguru-primen gaineko zergei dagozkienak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ez du kontabilitate-plan berekirik onetsi, eta 1994ko maiatzaren 6ko aginduaren bitartez onetsitako kontabilitate publikoko plan orokorra aplikatzen du.

Kontuan hartu beharra dago ezen apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bitartez, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berria onetsi zela, hain zuzen ere Foru Administrazioak eta haren erakunde autonomoek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharko dutena, baldin eta Nafarroako Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten ez bada.

VII.2 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Aitorturiko eskubideek 4.221,07 milioi euro egin zuten, 2008an baino ehuneko bat gehiago. Haien exekuzio mailak behin betiko aurreikuspenen ehuneko 92 egin zuten. 2009an, diru-sarreraren ehuneko 94 kobratu ziren.

Diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 47, 1.984,11 milioi, zuzeneko zergei dagokie.

Zerga horiek, 2009an, ehuneko sei gutxiago izan ziren 2008an sortutakoak baino. Behera egite hori nagusiki zor zaio 2009an ondarearen gaineko zerga desagertu izateari eta, neurri txikiagoan, PFEZak eta sozietateen gaineko zergak behera egin izateari. Zuzeneko zergei dagokienez, hasierako aurreikuspenen ehuneko 92 bete ziren.

Zeharkako zergek 1.422,51 milioi euro egin zuten, diru-sarrera guztien ehuneko 34, hain zuzen. 2008an baino ehuneko zortzi gutxiago izan ziren, BEZak behera egin izatearen ondorioz, funtsean.

2009an, Estatuari 2008an egindako ekarpenaren behin betiko likidazioari zegozkion 213,14 milioi euro jaso ziren.

Aitorturiko betebeharrak 4.372,68 milioi euro egin zuten, 2008an baino ehuneko 0,7 gutxiago. Haien exekuzio mailak behin betiko kredituen ehuneko 96 egin zuen. Gastuen ehuneko 91, 2009an zehar ordaindu ziren.

Honakoak izan ziren kontzeptu ekonomiko nagusiak eta gastuaren guztizkoan egiten zituzten zenbatekoak: transferentzia arruntak (ehuneko 38), langile-gastuak (ehuneko 27), kapital transferentziak (ehuneko 14), ondasun arruntak eta zerbitzuak (ehuneko 12) eta inbertsioak (ehuneko 8).

Sailkapen funtzionalari dagokionez, gastuaren ehuneko 22 osasunaren arlorako izan zen; ehuneko 19, administrazio publikoei eginiko transferentzietarako; eta ehuneko 7, azpiegituretarako.

2009ko ekitaldiko aurrekontu-saldo doitua - 89,63 milioi eurokoa izan zen; aurreko urtean, 8,56 milioira iritsi zen.

VII.3 LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuak 1.176,31 milioi eurokoak dira; gastu guztien ehuneko 27, hain zuzen. Guztizkoaren ehuneko 43 Osasun Departamentuari dago; ehuneko 31, Hezkuntza Departamentuari; eta ehuneko 16, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari.

2008ko urtearekin alderatuta, langile-gastuek ehuneko sei egin dute gora, nagusiki Osasuneko eta Hezkuntzako funtzionarioen ordainsariek gora egin dutelako, lanpostu berriak sortu direlako eta gizarte segurantzaren gastuek gora egin dutelako.

2009an lanpostuak -22.218, guztira- honakoei zegozkien:

	Administrazio erroa		Hezkuntza		Osasuna		Guztira	
	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008
Betetako lanpostuak	4.489	4.304	6.664	6.357	6.471	6.374	17.624	17.035
Lanpostu hutsak	1.220	1.292	1.180	640	2.194	1.665	4.594	3.597
Guztira	5.709	5.596	7.844	6.997	8.665	8.039	22.218	20.632

2009an, 1.586 lanpostu gehiago daude 2008an baino, batez ere honako lanpostuak sortu direlako:

- maisu-maistren 420 lanpostu eta irakasleen 424 lanpostu, egitura-izaerakoak.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura-ko 633 lanpostu, zeinetatik 436 egitura-enpleguari baitagozkio eta 197 itxaronzerrendak gutxitzeko programei baitagozkie.
- Foruzaingorako 105 lanpostu.

Lanpostu hutsak lanpostu guztien ehuneko 21 dira. Lanpostu guztien ehuneko 48 osasunaren arlokoak dira.

2009ko enplegu eskaintza publikoak 1.940 lanpostu huts hartu zituen; horietatik, ehuneko 44, osasunaren arlokoak dira; ehuneko 36, hezkuntzaren arlokoak; eta ehuneko 11, lehendakaritza, justizia eta barne arlokoak.

2009an, guztira 1.316 lanpostutarako deia egin zen, honako enplegu eskaintza publikoetan:

2009an deitutako lanpostuak	Kopurua
2009ko eskaintza	1.203
2008ko eskaintza	13
2007ko eskaintza	100
Guztira.....	1.316

Plantillan sartu gabe diraute Hezkuntza Departamentuko irakaskuntzaren arloko zuzendaritza postuetarako ezarritako osagarriek.

- O-NOZen ordezkapenak egiteko langileen hautapena.

O-NOZen ordezkapenatarako aldi baterako kontratazioak egiteko guztizko gastuak 54,74 milioi euro egin zuen 2009an.

O-NOZek eman zigun informazioaren arabera, 2009an, 54.363 kontratu egin ziren 3.979 pertsonarekin. Pertsona bakoitzeko 14 kontratu egin ziren, eta kontratuen batez besteko iraupena 14 egunekoa izan zen.

Ordezkapenak, nagusiki, ondoko lanpostuetarako izan ziren:

Lanpostua	Kontratu kopurua	%, kontratu guztien gainean	Pertsona kopurua
O.L.T./E.D.U.	21.106	% 39	1.297
Erizaintzako laguntzailea	12.889	% 24	807
Administrari laguntzailea	7.097	% 13	539
Osasun teknikariak	2.937	% 5	262
Zerbitzu anitzetako langileak	2.182	% 4	243
Oinarrizko Osasun Laguntzako sendagilea	1.330	% 2,5	121

Honakoak izan ziren ordezkapenatarako arrazoi nagusiak: oporrak, kontratu guztien ehuneko 61 egin zutenak; gaixotasunarengatik aldi baterako ezgaitasuna, ehuneko 11 egin zuena; eta lanaldi murriztua, zeinak kontratazio guztien ehuneko bost egin baitzuen.

Ordezkapenatarako kontratuetatik ehuneko 26 Bideko Ama Birjina Ospitaleari dagozkie; ehuneko 22, Nafarroako Ospitaleari; eta ehuneko 20, Iparraldeko Oinarrizko Osasun Eskualdeari.

O-NOZen aldi baterako langileen kontratazioak azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuan dago araututa; izan ere, dekretu horren bidez arautzen

da O-NOZen sartzea eta lanpostuen betetzea. Eta, gainera, 2009an, 2001eko urtarrilaren 9ko akordioa ere hartu behar da kontuan; izan ere, haren bidez onetsi zen Osasun Administrazioak AFAPNA, CEMSATSE, CCOO, ELA, LAB, SAE eta UGT sindikatuekin izenpetutako hitzarmena, O-NOZen menpeko osasun etxeetan eta establezimenduetan aldi baterako aritzeko langileak hautatzeari buruzkoa.

Hurrengo laginean, Iparraldeko Oinarrizko Osasun Eskualdeko, Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Nafarroako Ospitaleko ordezkapenatarako langileen hautapena berrikusi dugu:

Zentroa	Zenbat pertsona desberdin	Kontratuen kopurua, guztira	Berrikusitako kontratuen kopurua	Berrikusitako kontratuen egunak
Iparraldeko Oinarrizko Osasun Eskualdea	26	839	117	3.190
Bideko Ama Birjina Ospitalea	25	460	52	2.262
Nafarroako Ospitalea	24	216	39	2.964
Lagina, guztira	75	1.515	208	8.416
Kontratazioak, guztira	3.979	54.363		

Iparraldeko Oinarrizko Osasun Eskualdeko, Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Nafarroako Ospitaleko ordezkapenatarako langileen aldi baterako kontratazioari buruzko ondorioak berrikusitako laginari dagozkio soilik: 75 pertsona, 2009an aldi baterako kontratatu ziren 3.979 pertsona desberdinetatik.

Aitortzen dugun arren zailtasunik badagoela O-NOZeko langileen berehalako ordezkapenak arintasun handienarekin kudeatzeko –batez ere, oinarrizko osasun laguntzan–, berrikusitako kasuen erdietan baino gehiagotan O-NOZeko aldi baterako kontratazioari buruzko arauen ez-betetze batzuk egiaztatu dira.

Esate baterako, kasu batzuetan oposizioetara aurkeztu eta hautaprobak gainditu ez zituzten izangai batzuk kontratatu ziren, lortutako puntuazioa kontuan izan gabe, zeren eta 2009an ez baitzen erregelamenduz ezarri hautaprobetan lortu beharreko gutxieneko puntuaziorik. O-NOZeko langileen aldi baterako hautapenari buruzko 2009ko ekainaren 9ko erabaki berrian, 2010eko urtarriletik aurrera indarrean sartu zenean, ezarri zen oposizioetara aurkeztu eta hautaprobetatik bakarra ere gainditzeko ez zuten izangaiak gutxienez ere proba gainditzeko exijitzen den puntuazioaren ehuneko 30 lortu behar zutela.

Langile batzuk kontratatu ziren, hautapen prozeduren ondoriozko zerrendetan sartu zirela inon azaltzen ez den arren. Halaber, curriculumak aurkeztu bai baina zerrendetan, merezimenduak barematu ondoren, sartu ez ziren langileak kontratatu izan dira.

Bestalde, Iparraldeko Oinarrizko Osasun Eskualdean, zenbait kasutan ikusi dugu zuzenean kontratatu zela osasun etxeak proposatutako pertsona, jokabide hori justifika zezaketen presa-arrazoiak adierazi gabe.

Ez da beti posiblea izan jakitea zerrendak nola kudeatzen diren, kontratazioetarako lehentasunen hurrenkera jarraitzeari dagokionez.

Berrikusitako ordezkapeneko kontratuak idatziz egin ziren, ordezkapena egin aurretik, eta gutxienez ere arau erregulatuarekin exijitzen den gutxienekoa biltzen zuten; hau da: kontratuko aldean identifikazioa, ordeztu den pertsonaren eta lanpostuaren identifikazioa, ordezkapenaren arrazoiak, prestazioaren edukia eta hartarako eskatzen den kualifikazioa, kontratuaren iraupena, lan egiteko tokia eta ordutegia eta ordainsariak.

Alabaina, premiaren eskakizuna edo kontratazioari proposamena ez ziren beti formalizatu kontratua baino lehenago, eta batzuetan ez dago inongo justifikaziorik kontratazioaren presa-izaerari buruz.

Batzuetan, titulua emateko edo kasuko elkar-goko kide izateko eskubideen ordainketaren data kontratuaren ondorengoa da eta, are gehiago, zenbait kasutan, kontratatutako pertsonak ez zituzten ordaindu titulua emateko eskubideak, edo kontratua sinatu zutenean ez ziren kasuko elkar-goko kideak.

Bestalde, egiaztatu dugu zenbait inkoherentzia badaudela giza baliabideak kudeatzeko SAP aplikazio informatikoan; esate baterako, aukera ematen du alta emateko jada aplikazioan erregistraturik dauden langileei, eta horren ondorioz bidegabeko egoera batzuk gertatu dira zenbait pertsonak identifikazio zenbaki bat baino gehiago izateagatik eta okupazioaren % 100 baino gehiago izateagatik.

Esate baterako, egiaztatu dugu pertsona bat aldi berean bi zentro desberdinetan kontratatu zela.

SAP aplikazioko giza baliabideetarako modulua 2004an ezarri aurretiko datu-baseei eusten zaie. Mantentze lan horiek egiten dira datuak eskuz sartuz gutxienez ere hiru datu-base desberdin eta independentetan, nahiz eta datu base horiek antzeko edukia izan eta haietatik lortu SAP aplikazio informatikoko giza baliabideen moduluarekin ustiatzen ari ez diren tresnak.

VII.4 ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA.

Ondasun arruntengatik eta zerbitzuengatik gastuak 511,82 milioi eurokoak izan ziren; eta gastuen guttizkoaren ehuneko 12 egiten du. Ehuneko hiru egin zuten gora 2008koetik, funtsean kontsumorako osasun materialak gora egitearen ondorioz, osasun laguntzako hitzarmenen ondorioz eta “hirugarrenek eginiko bestelako lanak” deitutako kontzeptuko gastuen ondorioz.

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako erosketen ehuneko 47 Osasun Departamentuari dagozkio.

Honako gastu hauek aztertu dira:

	Gastua
Osasun arloko larrialdiei erantzuteko eta anbulantziatarako plana	10.052.888
Larrialdien sistema kudeatzailea	679.731
Eraikinen konpontze- eta mantentze-lanak	1.047.911
Agente bitartekari independenteen ordainsariak	277.834
<u>Garbiketa zerbitzuak:</u>	
San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoa	952.840
Haur eta gazteentzako instalazioak zentro psikogeriatrikoan	24.909
Nafarroako Ospitaleko D Pabilioia	499.188
Nafarroako Ospitaleko J Pabilioia	319.176
Osasun Publikoaren Institutua	106.737
<u>Honakoei eginiko enkarguak:</u>	
ITG Ganadero: mihi urdinaren aurkako txertatze-kanpaina (bi enkargu)	528.699
ITG Agrícola: nekazaritzako kontabilitatearen sarearekin batera eginiko lanak	46.400
Tracasa: abeltzaintzari buruzko inkestak	61.939
Tracasa: abeltzaintzaren arloko prezioak eta estatistikak	149.995
Tracasa: labore eta aprobetxamenduen mapak	59.195
Tracasa: Landa Garapeneko Programako laguntzak kudeatzea (LEADER ekimena)	167.056
TRAGSATEC: datu klimatologiko, hidrologiko eta edafologikoak bildu eta aztertzea	43.030
Nasera: nekazaritzarako makineriaren artxiboa	72.390
Nasera: analisi toxikologikoak eta biologia molekularrekoak Foruzaingoarentzat	99.870
Nasera: analisi toxikologikoak eta biologia molekularrekoak Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuarentzat	59.123

Oro har, kontratazio administratiboa eta laguntzetarako eta horniduretarako enkarguak arauetan ezarritakoaren babesean egin dira, eta gastuak baimenduta, justifikatuta eta behar bezala kontabilizatu eta ordainduta daude.

Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

- Larrialdiak kudeatzeko sistema

Sistema hau Tracasa sozietate publikoari alokatu zitzaion, 2006an onetsitako enkargu baten bitartez. Erostea aukera biltzen duen errentamendu finantzario bat da, hiru urterako. 2009an, azken urteko ordainketa egin zen, eta erosteak aukera gauzatu zen. 1.934.619 eurokoa izan zen larrialdietarako ekipoaren gutzizko kostua. Urteko errentamendu-kuota, aurreko ekitaldietan bezala, ibilgetua alokatzeko gastu arrunt gisa kontabilizatu zen. Irizpide hori zuzena izanen litzateke, ondasuna erostea aurreikusita egon ez balitz.

2009an –urte hartan amaitu baitzen errentamendua eta erosteak aukera baliatu baitzen– ez zitzaion ondasunari alta eman ibilgetuan, eta inbentarioan ere ez zen sartu.

- Garbiketa zerbitzuak

“San Frantzisko Xabierkoa” zentro psikogeriatrikorako garbiketa-kontratua 2008ko abenduaren 31n amaitu zen, eta 2009ko martxoaren 31ra arte luzatu zuten, zerbitzuaren kontratazio berria ebazteko aurreikusitako muga-eguna baitzen hori (kontratazioa 2008ko urriaren 6an baimendu zen).

Kontratu berria 2009ko ekainaren 1ean esleitu zen. Hori dela eta, apirilean eta maiatzean eginiko garbiketa-lanak ez ziren inongo kontratutan formalizatu. Bi hilabete horietako garbiketa gastuak 158.816 euro egin zuen, eta 2009ko abenduaren 31n onetsi zen. Haren ordainketa justifikatu zen aberaste bidegabearen printzipioaren arabera.

Haur eta gazteentzako eguneko ospitalerako instalazio berrien garbiketa zuzenean adjudikatu zen 2009ko maiatzean, 26.367 euroan, eta batetik garbiketa arrunta eta bestetik martxotik abendura bitarteko garbiketa biltzen zituen.

Nafarroako Ospitaleko D pabiloiaren garbiketa kontratua 485.705 euroan adjudikatu zen, 2009ko otsailaren 1etik 2009ko abenduaren 31ra bitarteko aldirako.

Adjudikaziorako irizpide gisa lanpostuen zerrenda ezarri zen, gehienez ere 40 puntuko balorazioa emanez. Izan ere, puntu horien banaketa erabaki zen aurkeztutako proposamen teknikoak ezagutu ondoren.

Osasun Publikoaren Institutuko garbiketa kontratua ehuneko 19,56 aldatu zen, 2009ko urtarrilean eginiko errefortzuko garbiketa-lanen ondorioz. Horri buruz, 2009ko maiatzeko ebazpena onetsi zen, non jasota ageri baitzen aldaketa 2009ko ekainaren 1ean hasiko zela eta urteko 105.159 gehieneko gastua onesten zela. Uztailean ebazpen hori zuzendu zen, eta 97.990 euroko urteko gehieneko gastua onetsi zen. Hala eta guztiz ere, guztizko gastuak 105.159 euro egin zituen, zeren eta aldaketaren xede ziren errefortzuko garbiketa lanak 2009ko urtarriletik egin baitziren.

- Tracasari eginiko enkargua, landa garapeneko programako laguntzak kudeatzeko.

Enkargu horretarako baimendutako gehieneko gastuak ehuneko 16 egin zuen gora, 22.917 euro, hain zuzen ere. Ez zen enkarguari buruzko ebazpena aldatu, aipatu igoerari lege-estaldura emateko, eta horrekin ez ziren baldintza-orriak bete, zeren eta haietan jasota ageri baitzen baimendutako gehienekoa gainditzeko duen gastu-igoera dakarten aldaketak ezin izan direla betearazi arestian aipatutako ebazpena aldatu gabe.

- Tragsatec-i eginiko enkargua, datu klimatologiko, hidrologiko eta edafologikoak bildu eta aztertzeko

Fakturari ez da xehetasunik agertzen enkargututako jardura betetzeko egiazki lan eginiko orduak buruz.

- Analisi toxikologikoak eta biologia molekularrekoak egiteko enkargua.

Nasersari enkargatu zitzaion analisi toxikologikoak eta biologia molekularrekoak egitea, bai Foruzaingoarentzat bai Nafarroako Auzitegiko Medikuntzako Institutuarentzat, 99.871 eta 59.123 euroan, hurrenez hurren. Bi enkargu horietan, aurrekontua kalkulatzeko erreferentzia gisa hartu zen aurreikusitako analisi-kopurua egiteko langile teknikariek erabiliko zuten ordu-kopurua.

Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuarentzat 80 analisi egin ziren, 400 egitea aurreikusita egon arren. Hala eta guztiz ere, guztizko zenbatekoa fakturatu zen, nahiz eta eginiko analisisien eta haiek egiteko erabilitako orduen artean alde bat bazegoen.

Ez dakigu Nasersak Foruzaingoarentzat zenbat analisi egin zituen, aurreikusita zeuden 800etatik.

VII.5 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITALEKO TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

2009an sortutako transferentzia arruntek eta kapitalekoek 1.642,9 milioi euro eta 624,65 milioi euro egiten dute, hurrenez hurren, eta gastuen guztizkoaren ehuneko 38 eta ehuneko 14 egiten dute.

Kontzeptu hauei dagozkien:

	Transferentzia arruntak	Kapitaleko transferentziak
Estatuarentzako ekarpena	613.283.530	
Fundazioei	2.589.978	4.531.469
Enpresa publikoei	18.146.564	1.689.748
Bestelako ente publiko batzuei (Unibertsitatea, Parlamentua)	74.536.430	4.845.271
Toki korporazioei	255.837.827	104.757.229
Enpresa pribatuei	84.137.095	281.762.992
Familiei eta partikularrei	369.150.750	203.864.792
Irabazi asmorik gabeko erakundeei	225.204.465	23.200.891
Kanporako	13.334	0
Guztira	1.642.899.973	624.652.392

Transferentzia arruntetan 80,45 milioi euroko gastu fiskalak eta 300,05 milioi euroko kapitaleko gastuak biltzen dira.

Estatuarentzako behin-behineko ekarpena 613,28 milioi eurokoa izan zen 2009an, eta transferentzia arrunten guztizkoaren ehuneko 37 egin

zuen. Ehuneko 13 egin zuen behera 2008ko ekarpenarekin alderatuta.

2009an, 213,14 milioi euro jaso ziren, 2008an egindako ekarpenaren behin betiko likidazioari zegozkionak.

Hurrengo kontusailen lagin bat berrikusi dugu:

	Zenbatekoa
Transferentzia arruntak:	
Ikus-entzunezkoen ekoizpenerako laguntzak	2.998.207
Laneratzearen eta lan orientazioaren arloko programak	1.900.000
Itunpeko irakaskuntza	1.608.655
Enplegu egonkortasuneko programak	960.000
Lan arriskuei aurrea hartzeko programa	870.000
Akitania-Nafarroa mugez gaindiko kooperazioa	185.733
Atzerriko hizkuntzetako prestakuntza	100.000
Kapital transferentziak:	
Familiei, etxebizitza arloko jarduketetarako	50.323.704
Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa	1.600.000

Egiaztatu da ezen, orokorrean, gastuak zuzen baimendu, justifikatu eta kontabilizatu direla eta diru-laguntzak haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eman, justifikatu eta ordaindu direla.

Halere, akats hauek aurkitu dira:

- Ikastetxeekiko ituna

Ez da kontrolatzen ikastetxe itunduetako irakasleen lanpostu hutsak publikoki iragartzen diren, ez eta haiek betetzerakoan merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen diren, nahiz eta hori ezarrita egon Hezkuntzarako Eskubideari buruzko 8/1985 Lege Organikoko 60. artikuluan; izan ere, hezkuntza itunei buruzko erregelamenduan eta itunetan beraietan ere artikulua hori aipatzen da.

Ikastetxeek Eskola Kontseiluaren ziurtagiri batekin justifikatzen dituzte administrazioko eta zerbitzuetako langileei dagozkien ordainsarien gastuak, mantentze gastuak eta inbertsioak birjartzeko gastuak, itunean ezarritakoari jarraituz. Inongo ikastetxetan ez da egiaztatzen gastu horiek benetan egin diren. Berrikusitako bi ikastetxeetan, justifikazioa bi hilabeteko atzerapenarekin aurkeztu zen.

- Akitania-Nafarroa mugez gaindiko kooperazio hitzarmena.

2000n, Nafarroako Gobernuaren eta Akitaniako erregioaren artean hitzarmen bat sinatu zen, eko-

nomiaren, ikerketaren eta nekazaritzaren arloetan eta beste arlo batzuetan baterako jarduketak egiteko, heziketa zentroen arteko trukeak sustatzeko eta lankidetzako proiektuak aurrera eramateko Europar Batasunaren laguntza finantzarioak lortzeko.

Aurkeztutako proiektuak batzorde tekniko batek baloratzen ditu, eta hark txosten bat eskatzen dio proiektuaren xede den arloan eskuduna den departamentuari. Gero, Batzorde Instituzional Iraunkorrek erabakitzen du batzorde teknikoak proposatutako proiektuei buruz.

2009an, 22.758 euroko diru-laguntza bat eman zitzaion lurraldearen garapen ekonomiko iraunkorrari buruzko proiektu bati. Proiektu hori dela eta, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak kontrako txostena eman zuen. Ez da agiri bidezko justifikaziorik agertzen Batzorde Instituzional Iraunkorrek hartutako erabakiei buruz.

Bestalde, diruz lagundutako gastuen justifikazioa berrikusten da, baina ez da egiaztatzen diru-laguntzaren onuradunek jarduerari buruz aurkeztutako oroitidazkia.

- Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioari emandako diru-laguntza.

Fundazio horrek 1.600.000 euro jaso zituen Foru Administrazioetik Orreagako erromesentzako aterpetzeko obren bigarren faseko 9 ziurtagiri ordaintzeko.

Alabaina, obrak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak izapidetu eta kudeatu zituen, bai lizitazioari dagokionez, bai exekuzioari, ziurtagiriei eta aldaketei dagokienez ere.

Fundazioaren jarduera mugatu zen departamentu horretatik igorritako proposamenak sinatzea eta ziurtagiriak Administrazioetik jasotako funtsekin eta funts berekiekin ordaintzera.

VII.6 INBERTSIOAK

Inbertsioek 341,09 milioi euro egin zuten, gastu guztien ehuneko zortzi hain zuzen ere, eta behin betiko kredituen ehuneko 88 betearazi zen. Fun-tsean, errepideei ehuneko 52 dagokie; eraikinei, ehuneko 24; eta ibilgetu ez-materialari ehuneko sei.

Honako inbertsioak fiskalizatu dira:

2009an esleitutako obra kontratuak.

	Lizitazio prezioa	Adjudikazioaren prezioa	Adjudikazioaren baja	Aurreikusitako kreditua	Gastua
Musika Kontserbatorioa	27.612.247	21.233.446	% 23	8.594.000	417.589
Ikerketa Biomedikoko Zentroa	22.410.000	16.350.336	% 27	3.000.000	381.979

- Bestelako inbertsioak

	2009ko gastua
Errepideen kontserbazio integrala	3.171.275
Moderna Plana	450.000
Karlismoaren Museoari buruzko proiektua	360.787
Ezagutzaren kudeaketa ezartzea	146.856

Oro har, kontratazio-espeditarean izapide-tzeak, esleipenak eta exekuzioak kontratu-legedia bete dute, eta gastuak baimenduta, justifikatuta eta egokiro kontabilizatuta daude.

Ondoren, fiskalizazioan atzemandako gorabeherak deskribatzen ditugu.

- Goi Mailako Musika Kontserbatorioa eta Kontserbatorio Profesionala

Goi Mailako Kontserbatorioak, Kontserbatorio Profesionalak eta "Pablo Sarasate" Orkestraren Egoitzak osatzen duten multzoaren obra egiteko proiektua eta zuzendaritza 2005ean adjudikatu ziren, 269.700 euroan. Obrak egiteko proiektua 2007ko otsailean onetsi zen, eta 269.700 euroko minuta ordaindu zen. Urte bereko abenduan, proiektua idazteko eta obra zuzentzeko kontratua ebatzi zen, eta 406.000 euro ordaindu ziren abaraste bidegabearengatik.

2008ko abenduan, 12.238 euroko gastua onetsi zen "Goi Mailako Kontserbatorioa eta Kontserbatorio Profesionala eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren Egoitza" proiektua aldatzeko, hain zuzen ere "Goi Mailako Kontserbatorioa eta Kontserbatorio Profesionala" proiektuari egokitzeko.

Kontratazio organoak onetsi zuen obra hori presaz izapidetzea. Presa horren justifikazioa zen "ahal bezain laster edukitzea eremu eta instalazio egokiak", baina ez zen argudio hori justifikatzen.

Ez da jasota ageri kontratazio mahaian Kontratazio Batzordeko ordezkaria eta kontu-hartzailea zeudenik.

Behin lizitatzailerak aurkezteko epea irekita, beste kontratazio espediente bat izapidetu zen, eta adjudikazio irizpideak aldatu ziren. Hartara, proposamen teknikoari 60 puntuko balorazioa eman zitzaion, nahiz hasieran 25 puntu ezarri ziren, eta eskaintza ekonomikoa 75 puntukoa izatetik 40 puntukoa izatera aldatu zen. Alabaina, ez zen lizitazioari buruzko iragarki berririk argitaratu, eskabideak aurkezteko epea zabaltzeko.

- Ikerketa Biomedikorako Zentroa

Ez dago jasota kontu-hartzaileak kontratazio mahaian parte hartu zuenik.

Ez ziren kontabilizatu 2009ko azaroko eta abenduko ziurtagiriak, guztira 705.318 euro egiten zutenak. Inbertsio horren kontusailak hiru milioi euroko kreditua zuen. Horietatik, 2.496.451 euro

transferitu ziren programa bereko gastu arrunteko kontusailletara.

- Errepideen kontserbazio integrala

Agoizko zainketa zentroko errepideen zainketa integralerako kontratua 2007an esleitu zen 2008tik 2011ra bitarteko aldirako, 13.017.714 euroan. 2009ko gastua 3.171.275 eurokoa izan zen.

Ez da aplikatu baldintzen orrian aurreikusitako prezioen berrikuspena. Hura aurkeztu izan balitz, ordea, 2009an, gure kalkuluen arabera, 152.026 euro eginen zituen Administrazioaren alde. Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeak ezarri zuen prezio-berrikuspenen zenbatekoa ordainduko da dagokion abonamendua edo deskontua ziurtagirietan (kontratu honetan, hilez hilekoak) edo ordainketa partzialetan eginez, edo, salbuespenez, amaierako ziurtagirian edo kontratuaren likidazioan, aipatu ziurtagiri edo ordainketa partzialetan sartu ezin izan direnean. Kontratu hau betearazteko epea 2011ko abenduaren 31n amaituko da.

- Moderna Plana.

Moderna Plana esaten zaio Nafarroaren garapen ekonomikorako ereduari eta plan estrategikoa-ri.

Plan horren lanketa, zeina 2008an hasi eta 2010ean amaitu baitzen, Agencia Navarra de Innovación y Tecnología sozietate publikoari enkargatu zitzaion. 2009ra arteko gastua 760.000 euroraino igo zen (310.000 euro 2008an eta 450.000 euro 2009an), eta sozietate horri 2010ean emandako enkargua 764.074 eurokoa izan zen.

Agencia Navarra de la Innovación y Tecnología sozietate publikoak –hari esleitu baitzitzaion

Moderna Plana egitea– hirugarrenekin kontratatu zuen enkargatutako prestazio ia osoa.

Enpresa publikoak aurkeztutako faktura guztietan ez dira zehazten exekutututako unitateak eta haiei dagozkien prezio unitarioak. Horrenbestez, ezin da egiaztatu fakturazioa egiazki enkargatutako prestazioei dagokien.

VII.7 INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA.

2009an, 12,38 milioi euroko inbertsioak bete-
rendu dira. Horietatik, 9,8 milioi lursail dagozkie eta gainerakoak eraikinei. 2009ko ekitaldia ixterakoan, diru-sarrera horien guztizkoaren ehuneko 26 baizik ez zegoen kobraturik.

Lezkairuko eremuan dagoen Lurzoruaren Foru Bankuaren lursail baten besterentzea –4.702.356 eurokoa, gehi BEZa, izan da– eta eraikin baten salmenta –157.189 eurokoa– berrikusi dira.

Aztertutako besterentzeek Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legean eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezarritako baldintzak betetzen dituzte.

Alabaina, ez da jasota ageri lursailaren salmentatik heldu diren diru-sarreraren jarraipena egiten denik, Lurzoruaren Foru Bankua mantentzeko edo handitzeko erabiltzeari dagokionez.

VII.8 JASOTAKO FIDANTZAK ETA GORDAILUAK

Jasotako fidantzen eta gordailuen kontuak, 2009ko ekitaldiaren amaieran, 2.199.553 euroko saldoa dauka. Honako ekitaldi hauetatik heldu da:

Urtea	Zenbatekoa
2000	33.411
2001	59.281
2002	7.616
2003	57.749
2004	59.965
2005	907.043
2006	70.511
2007	162.728
2008	345.805
2009	495.444
Guztira	2.199.553

Lau fidantza berrikusterakoan –guztira 881.969 euro egiten dute–, honako akatsak aurkitu ditugu:

Ez da ageri lurreko telebista digitalaren zerbitzuaren emakida administratiboarengatik 2005ean jasotako 698.350 euroko fidantzaren ziurtagiria. Kontratu horren kudeaketa hiru departamentu desberdinetatik pasatu zen.

Ez zen kontabilitatean desegin 84.000 euroko fidantza bat, 2005ean jasotakoa, jada ebatzita dagoen ekintza mediko baten ondoriozko auzi bati zegokiona.

Lurreko telebista digitalaren emakida-kontratua esleitu ondoren, ez zen itzuli 30.000 euroko behin-

behineko fidantza bat, 2003an jasotakoa, eta behin betiko fidantzarekin batera atxiki zen.

VIII. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN SOZIETATE PUBLIKOAK

2009ko abenduaren 31n, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak partaidetzaren gehiengoa zuen, zuzenean nahiz zeharka, 40 enpresaren kapitalean.

Honakoak dira sozietate horiei buruzko datu batzuk –haien xehetasunak txosten honekin batera doan oroitidazkian jaso dira–:

(euroak, milioitan; enpleguak izan ezik)

	2009	2008
Ekitaldiko emaitza	-110,68	-102,96
Jasotako diru-laguntzak	20,34	23,80
Epe luzeko zorra	205,94	166,19
Enplegatuen kopurua	1.234	1.182

2009ko emaitzaren zenbatekoa ez da 2008koarekin homogenea, Nafarroako Gobernutik jasotako ustiapenarako diru-laguntzei tratamendu desberdina eman zaie eta. 2009an diru-laguntza horiek bazkideen ekarpentzat hartu ziren, eta 2008an, berriz diru-sarrera gisa kontabilizatu ziren emaitzen kontuan. 2009an bazkideen ekarpen gisa ageri den zenbatekoa 10,07 milioi eurokoa da.

2009an, enpresa publikoek, guztira, 110,68 euroko galerak izan zituzten; Horietatik 100,12 milioi euro dagozkie Sprin enpresari.

Enpresa publikoen multzoaren epe luzeko zorpetzeak 205,94 milioi euro egiten du. Zor handiena duen sozietatea Tuterako Ciudad Agroalimentaria da, 52,74 milioi euroko zorra baitu. Ondotik, honakoak datoz: Nilsa, 35,83 milioi euroko zorrarekin, Circuito de los Arcos, 34,97 milioi zorrarekin eta Vinsa, 23,52 milioi euroko zorrarekin.

Sozietate publikoen urteko kontuen auditoriari dagokionez, iritzia eman dugu, honako lau enpresa hauetan salbuespenak eginez: Nafinco, Naseresa, Potasas de Subiza eta Tracasa. Gainerako sozietateen kasuan, iritzia aldekoa da.

Corporación Pública Empresarial de Navarra, S.L.U. eta Tucklan Footwear S.L. sozietate publikoek ez dute kontabilitate-erregulartasunari buruzko auditoriarik aurkeztu, nahiz eta, Ogasun Publikoari

buruzko Legearen arabera, auditoria hori sozietate eta fundazio publikoen urteko kontuetan sartu beharra dagoen.

Tuckland Footwear S.L. sozietate publikoaren 2009ko kontuen oroitidazkian adierazten den bezala –mendiko eta segurtasuneko oinetakoak egin eta merkaturatzearen arloko sozietatea da–, 2008an utzi zion lan egiteari, eta aktiboak eta pasiboak itxi eta ordenan likidatzeko prozesuan dago.

2009. urtean, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea onetsi zen, honako xedearekin: “Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-ondare publikoaren zati funtsezko baten (batez ere sozietate publikoak) eraginkortasuna eta eragimena arrazionalizatu, koordinatu eta ahal den onena bilakatzeko testuinguru bat eta tresna bateratu eta berariazkoa sortzea”.

Sozietate hori 2009ko azaroaren 4an eratu zen, 250.000 euroko kapital sozialarekin. Urteko kontuen oroitidazkian adierazten den bezala, 2009ko abenduaren 31n sozietatea bere jardueraren hasiera prestatzeko fasean zegoen. 2009an, 52.138 euroko galerak izan zituen, langile gastuen ondorioz eta sozietatea eratu eta abian jartzeko behar izan ziren zerbitzu profesionalak ordaintzeko gastuen ondorioz.

IX. GOMENDIOAK

Atal honetan jasotzen dira erregularitasunari buruz 2009an eginiko auditoriatik ateratako ondorio nagusietatik heldu diren gomendioak, bai eta aurreko ekitaldietako fiskalizazioetan eman eta bete gabe daudenak ere.

Presa handienekotzat eta lehentasunez gauzatu beharrezkotzat jotzen ditugun gomendioak hauek dira:

- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra bere zabaltasun osoan aplikatzea, bereziki ibilgetuaren eragiketei dagokienez. Horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago 2011ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zela Kontabilitate Publikoko Plan Orokor berria, Foru Komunitatean aplikatzekoa dena kontabilitate plan berekirik ez baitu onetsi.*

- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen (HKL) informazioa kontabilitate orokorrarekin koordinatzea. Hirugarrenen kontabilitate laguntzailea gaurkotzearen komenigarritasuna eta aukera aztertzea, jatorrizko garapenean ez aurreikusitako egoera berriak agertzen direnean, eta kontsulten sistema modernizatzeak ekar litzakeen abantailak ere ikertzea.*

- *Foru-funtzionarioen eskubide pasiboaren sistematik dakartzan betebeharrak aktuarialak neurtu eta finantzen egoera-orrietan erregistratzea.*

- *Nafarroako Foru Komunitateko ondasunen eta eskubideen inbentario oso bat egitea, eta bertan erabilera orokorrerako inbertsioak, ibilgetu ez-materiala eta finantza-inbertsio iraunkorrak sartzeta.*

- *Ondasunen inbentarioari haren balorazioa gehitzea, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean jasotako irizpideen arabera eginikoa, ibilgetuaren kontuetako kontabilitate-saldoak bermatze aldera. Gainera, ganbera hau behin eta berriro azpimarratzen ari den legez, ibilgetuaren kontabilitate-datuak eta inbentariokoak bateratzeko aukera emanen duten prozedurak taxutu behar dira. Horretarako, ukituriko zerbitzuen arteko koordinazio egokia egon beharko da.*

- *Aztertzea ea efizientea eta ekonomikoa ote den zati handi batean hirugarrenekin kontratatatu beharko dituzten lanak enkargatzea enpresa publikoei, alderatuz zuzenean Administrazioak haiekin kontratatzearekin.*

- *Enpresa publikoek beste enpresa batzuetan partaidetzaren gehiengoa edukitzeko irizpideak ezartzea.*

- *Foru Ogasunaren egoera finantzarioa 2008an eta 2009an nola narriatu den ikusita, krisi*

ekonomikoaren ondorioz, diru-sarreraren eta gastuen politikak definitzea, defizita gutxitzeko eta zor publikoari eusteko.

IX.1. AURREKONTUAK ETA KONTU OROKORRAK

- *Aurrekontuan behar diren hasierako kredituak jasotzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen erosketen eta zerbitzuen gastuei ekitaldian aurre egiteko.*

- *Aurrekontu programa guztietarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak definitzea; helburu horiek zenbagarriak eta neurgarriak izanen dira, eta haien betetze maila eta gertaturiko desbideratzeak aztertuko dira.*

- *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteko kontuak osatzea, Ogasun Publikoari buruzko Legean ezarritako kontabilitateko egoera-orri guztiekin, eta haien aurkeztea Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako egituraren arabera.*

- *Ekitaldiko oroitidazkiari erantzea ekitaldi bakoitzean betetako jarduera hobeki ulertzeko eta hura gardenago egiteko lagungarria den informazio guztia; besteak beste:*

- a) *Foru sektore publikoaren finantza-egoera orokorra erakustea.*

- b) *Urte anitzeko obra publiko handien egoera, bai eta itzaleko bidesariaren modalitatearen pean eginiko inbertsioena ere.*

- c) *Etorkizunerako hitzartutako gastuen artean sartzeta hurrengo ekitaldietarako hartutako konpromiso guztiak; besteak beste, finantza-zama.*

- d) *Ondasunen inbentarioari buruzko informazioa.*

- e) *"Aurrekontuan aplikatzeke dauden eragiketen zordunak" izeneko 409. kontuaren xehetasunak.*

IX.2. KONTABILITATEAREN KUDEAKETA

- *Kontabilitate printzipio publikoak erabili behar dituzten entitateek bete beharreko kontabilitate-arauak ezartzeko kontabilitateko jarraibideak eta kontabilitate-agirien nahiz kontabilitateko egoera-orrien eta kontuen eredu eta egiturak onestea.*

- *Kontabilitate sistema osatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*

- *Besteak beste, osasun itunen gastuak sortzapenaren printzipioaren arabera kontabilizatzea.*

- Lurzoruaren Foru Bankuko lursailen salmentatik heldu diren diru-sarreraren jarraipena egitea, diru-sarrera horiek hura mantentzeko edo zabalteko erabiltzeari begira.

- Jasotako fidantzen eta gordailuen kontua aztertzea eta, kasua bada, erregularizatzea.

IX.3. LANGILEAK

- O-NOZen aldi baterako langileen hautapena egitea, bereziki aurreikusteko modukoak diren arrazoiei dagozkien kontratazioak, horretarako erabiliz aldi berean kontratazioa arinduko duten eta izangaien zerrendak arau erregulatzailuetan ezarritako irizpideen arabera kudeatzeko bidea emanen duten prozedurak.

- Aztertzea posible ote den plantillako giza baliabideen bitartez erantzutea O-NOZen langile premiei, aurreikusteko modukoak diren eta planifika daitezkeen arrazoiei –besteak beste, oportu- zor zaizkienetan.

- Langileen datu base desberdinak integraztea Giza Baliabideen SAP aplikazio informatikoan, eta saihestea informazio bera aplikazio informatiko desberdinetan daukaten datu base desberdinak mantentzen ibiltzea, eta Giza Baliabideen SAP tresna informatikoa egokitzea langileen kudeaketako kasuistikari eta beharrei, kasu honetan O-NOZi dagokionez, eta aplikazioan kontrolak ezartzea, erregistro inkoherenteak saihesteko.

- Plantillan sartzeari Hezkuntza Departamentuko irakaskuntzaren arloko zuzendaritza postuetarako ezarritako osagarriak.

IX.4. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

- Kontratazio administratiboko espedienteak izapidetzea kontratatutako zerbitzua eman aurretik.

- Baldintza teknikoen orrian islatzea ezarritako adjudikazio-irizpide guzti-guztien ponderazioa.

- Kontratazio-mahaiak eratu behar dira kontratuei buruzko legedian ezarritako kide guztiekin.

IX.5. TRANSFERENTZIA-GASTUAK

- Idatziz jaso behar dira batzorde Instituzional Iraunkorrek Akitania-Nafarroa Mugez gaindiko Kooperazio Hitzarmenaren esparruan emandako eta ukatutako diru-laguntzei buruzko erabakiak. Diru-laguntzen onuradunek jarduerari buruz aurkezten duten oroitidazkia aztertu behar da.

- Orreagako erromesen aterpetzeko obren kudeaketaren efizientzia aztertzea. Kudeaketa horretan, fundazio publiko batek esku hartzen du, soilik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eginiko jarduketak formalizatzeko.

- Itundutako ikastetxeek ziurtatutako gastuak berrikustea.

- Kontrolatzea ezen ikastetxe itunduetako irakasleen lanpostu hutsak publikoki iragartzen direla eta haiek betetzeko merezimendu eta gaitasun printzipioei begiratzen zaiela.

IX.6. SOZIEKATE PUBLIKOAK

- Administrazio publiko desberdinek partaide-tzaren gehiengoa duten enpresen gainean egin beharreko kontrola zehaztea, administrazio horietatik bat ere ez denean kapital sozialaren gehiengoa duena.

- Urteko kontuekin batera aurkeztea sozietate guztien kontabilitate-erregulartasunari buruzko auditoria-txostena.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2011ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

NAFARROAKO GOBERNUKO BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA EKONOMIA ETA OGASUN KONTSEILARIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.

Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorri eta Nafarroako 2009ko kontu orokorren behin-behineko fiskalizazio-txostena aztertutik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Comptos Ganberak egindako gomendioei buruzko ondoko alegazioak aurkeztu ditu:

2009ko Kontu Orokorrei buruzko behin-behineko txostenean emandako gomendioei dagokienez, esan beharra dago departamentuaren lan-ildo berekoak direla, gastuaren gardentasunean eta efizientzian aurrera egiteaz denaz bezainbatean.

Lehena.- Gomendioen atalean, honakoak egiten dira:

Aurrekontu programa guztietarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak definitzea; helburu horiek zenbagarriak eta neurgarriak izanen dira, eta haien betetze maila eta gertaturiko desbideratzeak aztertuko dira.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak, 127. artikuluko b) letran, ezartzen du Kontu Orokorrek honakoa jasoko dutela: "Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehazten dituen aurrekontu programen emaitzen balantzea eta kudeaketa txostena, kasuan kasuko arduradunak prestatuak".

Arau horren aplikazioak berekin dakar aukera izatea aurrekontu-programa guztietan ez jardutekoa, baina hautapenak, zeina foru agindu bidez egiten baita, guztizko gastuaren % 80a gainditzen du eta kanpo uzten ditu, soilik, edo beste programa batzuetarako laguntza-jardueretarako gastuari eusten dioten programak, edo gastuaren hartzaile hutsak izan eta kudeaketaren berezko xedeak ezin isla ditzaketen programak.

Bigarrena.- Halaber, honako gomendia egiten zen:

Etorkizunerako hitzartutako gastuen artean sarritan hurrengo ekitaldietarako hartutako konpromiso guztiak; besteak beste, finantza-zama.

Kontu Orokorretan sarturiko urte anitzeko konpromisoen kapituluak biltzen ditu Nafarroako Foru Ogasunari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 40. artikuluan jasotako baimenaren babesean hartutako konpromiso guztiak, lege horretako

127. artikuluko e) letrak zehazten duen bezala; izan ere, letra horretan jasotzen da oroitidazki orokorraren edukiaren barruan sartu behar dela, besteak beste, "geroko ekitaldien kargura harturiko gastu konpromisoen egoera, foru lege honetako 40. artikuluan aipatzen den baimenaren babesean".

Finantza-zamari buruzko informazioa Kontu Orokorretan jasotzen da, "epe luzeko hartzekodunen" epigrafearen azpian. Bertan adierazten da zein den Nafarroako zor publikoaren ekitaldiaren bukaerako guztizko zorra, jaulkipen guztiei buruzko informazio zehatzarekin, bai eta amortizazio datak, interes tasak eta interesengatik abalaturako zenbatekoak ere.

Iruñean, 2011ko otsailaren 28an

Bigarren lehendakarioede eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Aurkeztutako alegazioak behin-behineko txostenari erantsi zaizkio, eta txostena behin betikotzat jotzen da; izan ere, ohar horiek hartu dira fiskalizazio-lanaren azalpentzat, eta ez dute txostenaren edukia aldatzen.

Alabaina, ganbera honek hauxe zehaztu nahi du:

Lehena: aurrekontuko programei buruzkoa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak ezartzen du aurrekontuko programa bat osatzen dutela urtean helburu batzuk lortzeko asmoz jarritako baliabideek.

Horri dagokionez, aurrekontu-programa guztiek helburuak eduki behar dituzte, dagozkien aurrekontu-kredituekin lotutakoak, bai eta ezarritako helburuen betetzeari buruzko neurketa egiteko adierazleak ere.

Bigarrena: etorkizuneko gastuen konpromisoei buruzkoa.

Finantza-zamak Nafarroako Foru Ogasunari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 40. artikuluan ezarritako urte anitzeko gastuaren kontzeptuari erantzuten dio, eta halakoa denez, etorkizuneko ekitaldien kargura hartutako gastu-konpromisoen egoeran sartu beharra dago.

Iruñean, 2011ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

